

'Tsendokuaren' arrastoan

Tsendokua, bai hitz arraroa! Gero eta ohikoagoa da beste hizkuntzetatik jasotako hitzak gure hiztegira eta egunerokora gehitzea. Sekuentzia honetan, *tsundoku* hitza aitzakiatzat hartuta, gure hainbat ohiturez arituko gara.

- Zer ote da *tsundokua*?
- Entzungaia entzun eta baieztapenak egia ala gezurra diren adierazi.
- **-gile** eta **-zale** atzizkiak erabiliz, ariketa egin.
- Binaka jarrita, gomendio bat eman.



Argazkia: Makunin (Pixabay)

1. Zer ote da *tsundokua*?

Binaka jarrita erantzun:

- *Tsendoku* hitza entzutean, zer ideia edo irudi datorkizu burura?

Arrazoitu zure erantzuna.



Argazkiak: Pxfuel



Ikaskideekin partekatu erantzunak.

2. Adi entzungaiari



Entzun Euskadi Irratiko pasarte hau eta baieztapenak egia ala gezurra diren adierazi.



Argazkia: Ikasbil





<https://labur.eus/uimCP>

	EGIA	GEZURRA
Tsendokuak larritasuna eta egonezina sor ditzake.		
Tsendoku, besteak beste, erositako liburuak mesanotxean pilatzeari deitzen zaio.		
Amaia Goikoetxeak liburuz beteta dauka gelako gau-mahaia, eta horrek, urduritu egiten du.		
Elkarrizketatuak dio azken boladan 40 bat liburu irakurri dituela.		
Amaiak normalean liburu bat baino gehiago irakurtzen du batera.		
Amaiak zerrenda digital bat dauka eta nahi dituen liburu-izen guztiak sartzen ditu, mugarik gabe.		

Alderatu zure erantzunak ikaskide batekin eta erantzun elkarri ondorengo galdera:



● Zu, tsendokugilea / tsendokuzalea al zara?

Adibidez:

- *Zu tsendokuzalea zara, Leire?*
- *Ni ez, batere! Liburuak apaletan gordetzeko ohitura dut. Bat amaitu ondoren, txukun-txukun utzi eta hurrengoa hartzen dut.*
- *Eta zu?...*

3. Atzizkiak landu

- GILE / - ZALE

Entzun dugun pasartean **tsundokugile** eta **tsundokuzale** hitzak agertu dira. Biak ala biak **izena + -gile/-zale** atzizkiak osatutakoak dira:

- tsundoku+gile → tsundokugile
- tsundoku+zale → tsundokuzale

Eta horiek bezala beste hauek ere bai: langile, musikagile, mendizale, musikazale...



Binaka jarrita idatzi bi atzizki horiek zer adierazteko erabiltzen ditugun.

-gile atzizkiaerabiltzen dugu.

-zale atzizkiaerabiltzen dugu.

Zuzendu ariketa talde handian.

KONTUAN HARTU

- **zale**-ren kasuan, atzizki gisa erabiltzeaz gain, beste modu batzuetara ere erabiltzen da bera bakarrik:

- **adjetibo gisa:** zerbait gustuko dugula edo ez dugula adierazteko. *Ad: ez naiz arriskuen **zale**.*
- **izen gisa:** afizio edo jarraitzaile adierazteko. *Ad: gola sartu zuenean **zaleak** txaloka hasi ziren.*



Argazkia: Unsplash

Ondoko elkarrizketan dauden hutsuneak bete aipatutako bi atzizkietatik egokiena erabiliz.

- *Niri irakurtzea gustatzen zait, batez ere misteriozko nobelak, **suspensezalea** (suspense) naiz, amaierara arte zer gertatuko den jakin gabe egotea gustatzen zait.*

- Nik ere gustuko ditut horrelakoak, baina duela gutxi oparitu zidaten hainbat emakumeren bizitza kontatzen zuen liburua, eta orain (biografia) bihurtu naiz. Asko ikasten da.

- Horretarako hoberena nire lagun (komiki) batek egiten dituen komikiak irakurtzea da. Gezurra dirudi zenbat ikas daitekeen marrazki eta testu motzekin.

- Testu motzez ari garela, poesia bezalakorik ez da, hain labur eta hain sakon. Zu (poesia) zara?

- Ez gehiegi, nik nobela nahiago dut. (nobela) guztiak ez dira berdinak, argi dago, baina poesia ala nobela aukeratu beharko banu, nobelarekin geratuko nintzateke. Eta guztiz desberdinak izan arren, bidaia-gidak ere gustuko ditut, badakizu (bidaia) naizela, eta bidaiari joan aurretik halakoak irakurtzea oso gomendagarria da.

4. Zein da, zein da...?



Aukeratu liburu bat eta gainerako ikaskideei gomendatu, binaka jarrita. Ez duzue izenbururik esango. Adierazi ondokoak:

● Norentzat da egokia?

.....

.....

● Istorioaren laburpena:

.....

.....

.....

● Zergatik merezi du irakurtzea?

.....

.....

Adibidez:

Norentzat da egokia? Gure ustez, abenturazaleentzat (abentura maite dutenentzat) izan daiteke egokia.

Istorioaren laburpena. Protagonista bidaiazale amorratua da: abentura asko bizi ditu eta leku ezezagun zoragarriak bisitatzeko ditu. Bidean, izaki txikiak, erraldoiak eta zaldi hiztun jakintsuak ezagutzeko aukera izango du, eta asko ikasiko du egoera horietatik.

Zergatik merezi du irakurtzea? Oso liburu atsegina eta interesgarria delako. Protagonistarekin batera, pasadizo asko bizitzeko aukera ematen du liburuak. Irakurtzen baduzue, leku eta paisaia zoragarriak ezagutuko dituzue.



Egin gomendioa gelakideei. Ea ikaskideek liburuaren izenburua asmatzen duten! Ezetz hain erraz asmatu!



Argazkia: Ikasbil

ERANTZUNAK

2. Adi entzungaiari

	EGIA	GEZURRA
<i>Tsundokuak</i> larritasuna eta egonezina sor ditzake.	X	
<i>Tsundoku</i> , besteak beste, erositako liburuak mesanotxean pilatzeari deitzen zaio.	X	
Amaia Goikoetxeak liburuz beteta dauka gelako gau-mahaia, eta horrek, urduritu egiten du.		X
Elkarrizketatuak dio azken boladan 40 bat liburu irakurri dituela.		X
Amaiak normalean liburu bat baino gehiago irakurtzen du batera.		X
Amaiak zerrenda digital bat dauka eta nahi dituen liburu-izen guztiak sartzen ditu, mugarik gabe.	X	

3. Atzizkiak landu

-gile atzizkia: egilea/ egiten duena adierazteko erabiltzen dugu: etxegile → etxeak egiten dituen pertsona. Aditzari lotuta ere joan liteke: sendagile, langile...

-zale atzizkia: zaletasuna adierazten du, gustuko duguna azaltzeko erabiltzen dugu: ardozale → ardoa gustatzen zaion pertsona.

- *Niri irakurtzea gustatzen zait, batez ere misteriozko nobelak, **suspensezalea** naiz, amaierara arte zer gertatuko den jakin gabe egotea gustatzen zait.*

- Nik ere gustuko ditut horrelakoak, baina duela gutxi oparitu zidaten hainbat emakumeren bizitza kontatzen zuen liburua, eta orain **biografiazale** bihurtu naiz. Erraz irakurtzen diren testuak dira, eta asko ikasten da.

- Horretarako hoberena nire lagun **komikigile** batek egiten dituen komikiak irakurtzea da. Gezurra dirudi zenbat ikas daitekeen marrazki eta testu motzekin.

- Testu motzez ari garela, poesia bezalakorik ez da, hain labur eta hain sakon. Zu **poesiazalea** zara?

- Ez gehiegi, nik nobela nahiago dut. **Nobelagile** guztiak ez dira berdinak, argi dago, baina poesia ala nobela aukeratu beharko banu, nobelarekin geratuko nintzateke. Eta guztiz desberdinak izan arren, bidaia-gidak ere gustuko ditut, badakizu **bidaiazalea** naizela, eta bidaian joan aurretik halakoak irakurtzea oso gomendagarria da.

HIZTEGI LAGUNGARRIA

Zertaz ari garen. Zeri buruz ari garen hizketan.

Liburu-meta handitu. Liburu pila handitu.

Liburuak metatu. Liburuak pilatu.

Baten batek aipatu. Norbaitek, pertsonaren batek aipatu.

Edonondik etorri. Edozein lekutik, edozein bidetik etorri.

Ez da bideragarria. Ezin liteke aurrera eraman, ezin da egin.

Aldiberean. Une berean, momentu berean.

TRANSKRIPZIOA

Olaia Urtiaga esataria. Ez dakit oso argi gauza ona ala txarra den *tsundoku* japonierazko hitzaren atzean ezkututzen dena, Lierni.

Lierni Ibargutxi esataria. Nik uste dut hasieran ona dela, baina denborak aurrera egin ahala ba urduritasun edo ezinegona ere sor diezaguke.

Olaia Urtiaga. E, baina azaldu beharko dugu ez?, zertaz ari garen, ezta?

Lierni Ibargutxi. Bai, noski. *Tsundoku* da, ba begira, liburuak erosi eta gero hauek ez irakurtzeari, mesanotzeko liburu-meta handituz eta handituz joateari, horri esaten zaio *tsundoku*.

Olaia Urtiaga. Ba ni talde horretan nago. Ni errudun.

Lierni Ibargutxi. Bai, ni ere bai.

Olaia Urtiaga. Amaia Goikoetxea, 111 akademiaren koordinatzailea. Arratsalde on. Zer moduz?

Amaia Goikoetxea, 111 akademiaren koordinatzailea. Oso ondo. Mila esker.

Olaia Urtiaga. Amaia, zuena Euskal Herriko literaturzaleen bilgunea izanik, bueno, pentsatzen dugu tsundokugile edo tsundokuzale asko dagoen lekura deitu dugula. Zu zeu ba al zara liburuak erosi eta hauek metatzen joatekoa irakurriko dituzunaren esperoan?

Amaia Goikoetxea. Ba begira, nik fisikoki metatu baino gehiago, daukat mugikorrean artxibo bat sortuta horretarako: da irakurri nahi ditudan liburu guztiak apuntatzeko. Bai? Orduan nik ikusten badut liburu bat, ez dakit, sare sozialetan baten batek aipatu duela edo irakurtzen ari naizen liburu batean idazleak berak erreferentzia egin diola edo, ez dakit, edonondik etor dakidakeen ideien bat, dena hor apuntatzen dut, ezta? Orduan hori izango litzateke nire bueno, ba liburu pila hori, baina zerrenda batean, hau da fisikoki eduki gabe. Ze(ren) uste dut ez litzatekeela bideragarria nire mesanotxean. Egiten dut dena artxibo horretan apuntatu.

Lierni Ibargutxi. Agian hori ere hartu beharko genuke *tsundoku* bezala, e?, *tsundoku* digital bezala. Orduan...

Amaia Goikoetxea. Bai. Nik uste dut balio duela, bai.

Lierni Ibargutxi. Zure artxibo horretan begiratuko bagenu, Amaia?

Amaia Goikoetxea. Bai. Bai.

Lierni Ibargutxi. Zenbat liburu aurkituko genituzke une honetan zuk noiz irakurri zain, gutxi gorabehera?

Amaia Goikoetxea. Ba oraintxe bertan, aurretik kontatzen aritu bainaiz, aritu bainaiz badaezpada ere, 38 dauzkat kontatuta.

Olaia Urtiaga. Ba bai; ez, ez da bideragarria mesanotxean egongo balitz... Bai. Bai. Bai.

Amaia Goikoetxea. ...nituen.

Olaia Urtiaga. Zenbat liburu irakurtzen duzu gutxi gorabehera aldi berean?

Amaia Goikoetxea. Normalean bakarra.

Lierni Ibargutxi. A, begira!

Amaia Goikoetxea. Eta bai. Kasu, kasu konkretu batzuetan bi. Ba izan liteke akaso irakurtzen ari, ari naizen liburua, bueno, exigentegia edo sakonegia dela, bada, adibidez, gauean irakurtzeko, ezta?, ez baitut asko, asko irauten gauean. Eta orduan, kasu horretan ba hartzen dut bat arinxegoa edo dena gauerako, baina bestela normalean bakarrarekin aritzen naiz. Bai.

Lierni Ibargutxi. Bai. Hori galdetu behar genizun, ea momentu baterako edo beste baterako, ba, ba hori, ohera zoazenean esan duzu pixka bat zeozer arinagoa, ezta?, irakurtzen duzula.

Amaia Goikoetxea. Bai.

Lierni Ibargutxi. Ez duzu, beraz, liburu asko e, hasiak, e. Ez duzu hori egiten. Hor ere ni errudun, e, baina bueno. Eta mugarik jartzen diozu zure liburu-metari digitalari?, artxibo horri?, hor tope (muga) bat jartzen diozu ala hor sartu eta sartu joaten zara liburuak?

Amaia Goikoetxea. Bai. Sartu eta sartu. Bai. Bai. Bai. Eta gainera esan dizuet, e, hau da, edonondik har ditzaket zerak, ideiak edo erreferentziak eta, eta dena hor apuntatzen dut. Eta gero ez ahazteko, ez? Ze(ren), ze(ren) hasieran esaten nuen: "Jo, hau irakurriko nuke". Baina gero ahaztu egiten zitzaidan. Azkenean hainbeste, hainbeste dira, ez?, ahaztu egiten zitzaidan, eta esan nuen: "Ez. Ez. Ba apuntatzen hasiko naiz". Eta ez daukat, ez daukat mugarik.

Olaia Urtiaga. Orduan, ez daukazu mugarik. Batzuetan izaten da agobioa (ezinegona) ere sartzen dela. Zerrenda ikusten duzu eta diozu: "Ez dut gehiago gaineratuko". Baina gero erakusleihora gerturatzen zara, zure liburu-denda kuttunera gerturatzen zara eta ikusten duzu badela dagoeneko zure zain dagoen liburu hori.